

Koiuntura di-da batean

2016ko abendua

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Lan merkatua
3. Kanpo merkataritza
4. Inflazioa
5. Europako hazkundera
6. Aurreikuspen berriak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %3,0 hazi zen hirugarren hiruhilekoan.

Bosgarren hiruhilekoz jarraian berdindu edo gainditu du zenbaki hori.

2. Enplegu sorrerak modu egonkorrean egiten du aurrera.

Kontu ekonomikoetan ia 900.000 lanpostu zenbatetsi dira guztira.

3. Energiaz bestelako esportazioek beste maximo bat lortu dute.

Ondasun horien salmenta 15.000 milioi euroen ingurukoa izan da urtariletik irailera bitartean.

4. KPIa azken hiru urteko mailarik gorenean dago.

Udaberrian adierazle hori %2,0aren inguruan kokatuko dela aurreikusten da.

5. Europar Batasunak %1,9an egonkortu du hazkunde tasa.

Espainiak eta Erresuma Batuak duten bizitasunaren aurrean, Frantzia eta Italia motelago hazi dira.

6. Europar Batasunerako aurreikuspenak zertxobait beheratu dira.

Brexitak eta AEBetako presidentziarako hauteskundeek kanpo merkataritza kaltetu dezakete.

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomin eta Planifikazio Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

BPG-AREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %3,0 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

BPGaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Eustatek argitaratu duen informazioaren arabera, hirugarren hiruhilekoan EAEko ekonomia %3,0 hazi zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago. Beraz, egiaztatuta dago urtean zehar moteltzeko joera arina bizi dela. Hala eta guztiz ere, erritmo galera hori aurreikusi zena baino txikiagoa izaten ari da. Halaaber, bosgarren hiruhilekoz jarraian urte arteko tasa %3,0an edo gorago kokatu da.

Hala kontsumoak nola inbertsioak tasa garrantzitsuak eskuratu zituzten, urteko lehen erdikoak baino zertxobait txikiagoak izan ziren arren. Berrito azpimarratu behar da kontsumo pribatuaren sendotasuna (%3,1), enplegu sorrerak, prezio apalek eta igurikimene hobekuntzak bultzatuta. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordina (%6,1) izan zen inbertsioaren bultzagile nagusia.


Azken kontsumoaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak




Inbertsioaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak




Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreka eginiko analisiak iradokitzen du industria suspertu dela, bigarren hiruhilekoan indarra galdu eta gero. Eraikuntzak, berriz, gehikuntza nabarmena lortu zuen berriro, aurreko datuaren mailara iritsi gabe. Azkenik, zerbitzuak berriro izan ziren arlo dinamikoena, jaso zuten emaitza (%3,1) aurreko epealdietakoen antzekoa izan zelarik. Sektore horren barruan, aurreko hiruhilekoko ezaugarriak bere horretan hauteman dira, hots, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen atala gehiago hazi da eta arlo publikoari lotuago dauden adarren hazkundeak irudi egonkorragoa eskaini zuen.


Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren b.e.

Urte arteko aldakuntza tasa



Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jardueren b.e

Urte arteko aldakuntza tasa




LAN MERKATUA

Enplegu sorrerak modu egonkorrean egiten du aurrera

Enpleguaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek osatzen dituen kontu ekonomikoek zenbatetsi dutenez, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %1,8 hazi zen 2016ko hirugarren hiruilekoan. Zenbaki horrek aurreko hiruilekoan lortutakoa berdindu zuen eta aurreko bi epealdien aldean hamarren bakar bat galdu zuen. Datu horiek enpleguaren hazkunde erritmoan aurreko buletinetan iragartzen zen egonkortasuna baieztatu dute. Mailatan aztertuta, hirugarren hiruilekoan zeuden lanpostuak oso hurbil zeuden 900.000ko langatik. Kopuru hori 2012ko hasieran galdu zen, baina aurtengo amaieran berreskuratzeko aukera garbia dago. Urte arteko aldakuntza tasan, azken urtebetean 16.000 lanpostu sortu dira. Eraikuntzak eta lehen arloak ez dute parte hartu enpleguaren hobekuntza horretan.


Enplegua lehen arloan

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua eraikuntzan

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua industrian Urte arteko aldakuntza tasa




Industria paper garrantzitsua jokatzen ari da enpleguaren gehikuntzan. Izan ere, zortzi urtez jarraian lanpostuak galdu ondoren, dagoeneko hiru hiruhi-leko kateatu ditu gero eta hazkunde tasa biziagoak lortuz. Hain zuzen ere, azken epealdian, urte arteko tasa %2,0 izan zen eta 4.500 lanpostu berreskuratu ditu 2015eko hasieran zituen gutxieneko maila hartatik.

Industriak bezala, zerbitzuek ere bizitasun handia erakutsi zuten enplegu garbia sortzeko orduan eta haiek ere %2,0ko urte arteko tasa eskuratu zuten. Hala ere, manu-fakturek ez bezala, zerbitzuen bilakaera beheranzkoa da, nahiz eta badirudien gehikuntza erritmoa egonkortzeko joera duela. Kasu horretan, sektorean dagoen lanpostuen kopurua (647.269) serie historiko osoan inoiz jaso den altuena da.

Enplegua zerbitzuetan Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioa Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzako afiliazioak argi apur bat ematen du laugarren hiruhilekoan enpleguaren alorrean gerta daitekeen bilakaeraz. Izan ere, urrian aldagai horrek %2,2ra arte bizkortu zuen hazkunde tasa, aurreko emaitzak nabarmen gaituz. Estatistika horretan ere industria enpleguaren ibilera ona eta zerbitzuen egonkortasuna egiazta-tzen dira, biak ala biak %2,2aren inguruan hazten direlarik. Ostalaritza (%2,8) eta hezikuntza (%3,1) dira urte arteko aldakuntza tasarik altuena duten sektoreetako bi.

KANPO MERKATARITZA

Energiaz bestelako esportazioek beste maximo bat lortu dute

Esportazio ez-energetikoen hazkundera. Milioi euro
Urtarril-iraila bitarteko balio metatua



Iturria: Eustat.


Eustatek atzerrira esportatutako ondasunen datuak argitaratu ditu 2016ko urtarrietik irailera bitarteko epealdirako. Informazio horren arabera, EAEko enpresek 15.000 milioi euro inguru balio zuten energiaz bestelako ondasunak saldu zituzten aurtengo lehen bederatzi hilekoetan, gaur arte inoiz lortu den zenbakirik gorena dena. Urte arteko tasatan, hazkundera %3,6 izan zen. Tasa horrek 2,2 puntutan hobetzen du aurreko urteko epealdi berean eskuratutako emaitza eta, aldi berean, 2011tik lortu den altuena da, Espainiak epealdi berean jaso zuena (%2,9) gaindituz.

SALMENTEN ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK
Urtarril-iraila. Urte arteko aldakuntza tasak


	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Euskadi	11,3	-29,9	21,5	16,9	-1,0	0,2	3,2	1,4	3,6
Espainia	3,7	-17,5	15,6	16,4	3,1	5,6	0,8	6,8	2,9

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (Datacomex).

Esportazio ez-energetikoen banaketa



Ekipamendu ondasunen bilakaera




Ekipamendurako ondasunek energiakoak ez diren esportazio guztien erdia baino gehiago biltzen dute eta, horren ondorioz, beren bilakaerak salmenta osoarena baldintzatzen du. Garraio materialak erakutsi zuen sendotasunak, %23,8 hazi baitzen, makinak eta tresnek pairatu zuten murrizketa txikia (%-1,8) konpentsatu zuen, eta ekipamendurako ondasunak %11,6 areagotzea ahalbidetu zuen. Horretaz gain, paperaren (%9,6) eta bestelako manufakturen (%6,0) bilakaera onak gorakada azaltzen du.

Esportazioen guztizkoari dagokionez, energiako produktuen eta metal arrunten bilakaera txarrak guztiz lastatu zuen emaitza, bi atal horiek prezioen beherakadak kaltetu zituelako. Hala eta guztiz ere, eta esportazioen guztizkoa %1,0 jaitsi zen arren, saldo guztizkoa superabitean amaitu zen eta 4.758 milioi eurotik gorakoa izan zen, gaur arte inoiz eskuratu den altuena.


Saldoa guztira. BPGaren %a

Urtarril-iraila



Saldo ez-energetikoa. BPGaren %a

Urtarril-iraila



INFLAZIOA

KPIa azken hiru urteko mailarik gorenean dago

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko inflazioa %0,7an kokatu zen urrian, azken hiru urteko epean izan duen tasarik gorena delarik. Beraz, hiru hileko jarraian kokatu da balio positibotán. Hori horrela izanda, eta berriro ere argindarraren eta erregaien salneurrietan oinarrituta, inflazioak atzean utzi ditu aurreko hilekoetako balio negatiboak. Are gehiago, goranzko norabideari eutsiko diola aurreikusten da, udaberrian urteko tasa %2ra iristeko aukerak egonez.


KPIaren banaketa

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2014	2015	2016ko urria	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,2	-0,3	0,7	0,7
Azpiko inflazioa (%82,6)	0,3	0,7	0,8	0,6
- Elikagai landuak (%14,1)	0,0	1,1	0,1	0,0
- Industria ondasunak (%26,6)	0,1	0,3	0,9	0,2
- Zerbitzuak (%41,9)	0,6	0,8	1,0	0,4
Hondar inflazioa (%17,4)	-0,6	-4,5	0,4	0,1
- Landu gabeko janariak (%6,8)	-1,2	1,9	0,8	0,1
- Energia (%10,6)	-0,1	-8,4	0,1	0,0


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



KPIaren goranzko bilakaera petrolioaren prezioak izan duen garestitzearen ondorioa da. Izan ere, 2014ko erdialdean 115 dolarren inguruan egon ondoren, beheranzko joera hartu zuen, aurtengo hasieran 30 dolarren azpitik kokatu zen, harez geroztik goranzko norabidea hartzeko eta gaur egun 46 dolarretan saltzeko. Are gehiago, prezioaren susperraldiak datozen hilekoetan ere jarraituko duela aurreikusten da, ekoizpena murrizteko hainbat herrialdek sinatu duten akordioaren ondorioz.

Horiek horrela izanda, garraio taldea Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2ko helburura hurbildu zen, erregaiek izan duten garestitzearen ondorioz. Erreferentzia hori gaingitu duen talde bakarra komunikazioena da (%3,2). Beste muturrean, oraindik iazko salneurriak gutxitzen ari dira etxebizitza alorrean, argindarraren prezioa igo den arren, eta aisia eta kulturaren, bidaia antolatuen prezioa merkatu delako.

KPIaren talde nagusiak
 Urte arteko aldakuntza tasak. 2016ko urria


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,7	0,7	0,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,3	0,3	0,0
Edari alkoholodunak eta tabakoa	0,4	0,3	1,8
Jantziak eta oinetakoak	1,1	0,9	0,4
Etxebizitza	-0,6	-0,4	-0,2
Etxeko tresneria	0,8	0,1	0,1
Medikuntza	0,7	-0,2	0,8
Garraioa	1,8	1,7	0,8
Komunikazioak	3,2	3,2	0,0
Aisia eta kultura	-1,8	-1,9	0,2
Hezkuntza	1,0	0,9	0,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,9	1,2	1,6
Bestelakoak	1,9	1,9	1,0

Iturria: INE eta Eurostat.

EUROPAKO HAZKUNDEA


Europar Batasunak %1,9an egonkortu du hazkunde tasa

Europar Batasuna. BPGaren bilakaera Aldakuntza tasak



BPGaren 2016ko hirugarren hiruhilekoko datuen argitaratzeak erakusten du inguruneko zurrunbiloek eragin mugatua izan dutela Europar Batasuneko hazkundean, zeren eta hirugarren hiruhilekoz jarraian, %1,9ko gehikuntza eskuratu zuelako. Euroguneari dagokionez, bertako hazkundea ere egonkortu da, %1,7an kasu horretan. Herrialdeka, alde handia dago oraindik hazkunde erritmoan. Gaur arte argitaratu diren datuen arabera, Espainia, Erresuma Batua eta, neurri txikiagoan, Alemania dira hazkundearen motorrak berriro, Frantzia eta Italia motelago hazten diren bitartean.

Alemaniko BPGaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Eurostat.

Alemanian, gorantz doazen soldatek eta enplegu sorrerak sendotasuna eman zioten familien kontsumoari. Halaber, gastu publikoa %4,5 handitu zen, 1994ko amaieratik izan duen gorakada handiena baita, iheslarien harreraren ondorioz. Kontsumoaren gehikuntza horiek inportazioen bultzada konpentsatu zuten, azken horiek indartsu areagotu baitziren. Aurrekoaren ondorioz, Alemaniako BPGa %1,7an kokatu zen, urte hasieratik ia mugitu gabe eskuratu duen tasa delarik.

Frantziako BPGaren hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat.

Frantzian, kontsumo publikoa egonkor hazi zen eta esportazioek aurreko hiru hilekoan galdu zutenaren zati handi bat berreskuratu zuten. Hala ere, tasa horiek ez ziren nahiko izan kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren moteltzea konpentsatzeko edo inportazioen bultzadari aurre egiteko. Horren ondorioz, bertako BPGa %1,1ean kokatu zen. Bigarren hiru hileko jarraian hazkunde erritmoa galgatu da eta horrek gobernuak ezarri zuen %1,5eko hazkundetik urruntzen du.

Espainiako taula makroekonomikoa

	2015-I	2015-II	2015-III	2015-IV	2016-I	2016-II	2016-III
BPG	2,7	3,1	3,4	3,6	3,4	3,4	3,2
Kontsumo pribatua	2,4	2,5	3,3	3,2	3,4	3,2	2,8
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	2,3	2,7	2,0	0,8	1,4
KFEG	4,7	6,3	6,7	6,4	4,8	3,6	3,1
Esportazioak	4,6	5,0	4,9	5,0	4,1	6,4	2,8
Inportazioak	4,8	5,5	6,2	6,1	4,8	5,1	0,9

Espainiako ekonomia osasuntsu dago. Hazkunde erritmo biziei eutsi die eta Europar Batasunaren buruan dago. Are gehiago, hazkundearen egitura gero eta orekatuagoa da, zeren eta bi eskariek ekarpen positiboak egin baitzizkioten gehikuntzari. Kontsumo pribatuak ekonomia jarduera bultzatzen jarraitu zuen eta inbertsioak bilakaera sendoa erakutsi zuen berriro, aurreko hiru hileko emaitzaren aldean indar apur bat galdu zuen arren. Eskaintzaren aldetiko bilakaera ere ona izan zen, sektore guztiek gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituztelako. Azkenik, enpleguak erritmoa bizkortu zuen eta %2,9ra iritsi zen, aurreko hiru hilekoan lortutakoa hamarren bat gaindituz.

Espainia. Barne eta kanpo eskaria

Ekarpenak




Iturria: INE.

EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Europar Batasunerako aurreikuspenak zertxobait beheratu dira

Europar Batasunaren BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Europar Batzordeak udazkeneko txostenean argitaratu dituen aurreikuspenen arabera, Europar Batasuneko ekonomia-
ren hazkundea %1,8an kokatuko da 2016an, %1,6an 2017an eta 2018an berriro %1,8ra bizkortuko da. Datu makroekonomiko horien epe laburreko testuinguruan, gaur egungo bizitasuna ahalbidetu duten kanpoko faktore batzuen desagerpena, tentsio geopolitiko handia eta nazioarteko merkataritza ahula aipatzen dira. Brexitak eta AEBetako hauteskundeen emaitzak ziurgabetasuna ekarri diete Europako ekonomia hazkundearen igurikimenei.


Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak. BPG

	Oraingoak				Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2015	2016	2017	2018	2016	2017
Europar Batasuna	2,2	1,8	1,6	1,8	=	-0,3
Erresuma Batua	2,2	1,9	1,0	1,2	-0,1	-0,9
Eurogunea	2,0	1,7	1,5	1,7	+0,1	-0,3
Alemania	1,7	1,9	1,5	1,7	-0,3	-0,1
Belgika	1,5	1,2	1,3	1,5	=	-0,3
Espainia	3,2	3,2	2,3	2,1	+0,6	-0,2
Frantzia	1,3	1,3	1,4	1,7	=	-0,3
Italia	0,7	0,7	0,9	1,0	-0,4	-0,4
Herbehereak	2,0	1,7	1,7	1,8	=	-0,3
Portugal	1,6	0,9	1,2	1,4	-0,6	-0,5
Beste herrialde garatu batzuk						
AEB	2,6	1,6	2,1	1,9	-0,7	-0,1
Japonia	0,5	0,7	0,8	0,4	-0,1	+0,4


Iturria: Europar Batzordea.

Alemaniko BPGa


Urte arteko aldakuntza tasa

**Frantziako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa

**Espainiako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak



2016-2018 epealdian, ekonomiaren hedapena orokorra izango da moneta batasuneko herrialde guztietan, nahiz eta batzuen eta besteen artean alde handia egongo den.

Euroguneko herrialdeen arteko merkataritza bizia izango da datozen urteetan. Beste aldetik, esportazioen eremuan zalantza handiak agertu dira Europar Batasunaren eta Erresuma Batua-ren artean egongo diren merkataritza harremanengatik eta joera protekzionistagoagatik. Libera esterlinaren balio galerak Euroguneko esportazioen bultzada galgatuko du.

Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak. Langabezia tasa

	Oraingoak				Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2015	2016	2017	2018	2016	2017
Europar Batasuna	9,4	8,6	8,3	7,9	-0,3	-0,2
Erresuma Batua	5,3	4,9	5,2	5,6	-0,1	+0,3
Eurogunea	10,9	10,1	9,7	9,2	-0,2	-0,2
Alemania	4,6	4,4	4,3	4,2	-0,2	-0,4
Belgika	8,5	8,0	7,8	7,6	-0,2	+0,1
Espainia	22,1	19,7	18,0	16,5	-0,3	-0,1
Frantzia	10,4	10,0	9,9	9,6	-0,2	-0,2
Italia	11,9	11,5	11,4	11,3	+0,1	+0,2
Herbehereak	6,9	6,1	5,8	5,4	-0,3	-0,3
Portugal	12,6	11,1	10,0	9,5	-0,5	-0,7
Beste herrialde garatu batzuk						
AEB	5,3	4,9	4,7	4,7	+0,1	+0,2
Japonia	3,4	3,2	3,2	3,2	-0,2	-0,1

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016		
			III	IV	I	II	III
BPG	1,6	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2	3,0
Familien kontsumoa	2,2	3,1	3,1	2,9	3,3	3,4	3,1
Administrazioaren kontsumoa	0,7	1,8	3,4	2,0	2,4	2,7	0,8
Kapital eraketa gordina	-0,5	2,8	2,8	2,8	3,4	3,7	3,1
Barne eskaria	1,4	2,8	3,1	2,7	3,1	3,3	2,7
Esportazioak	5,8	0,6	-2,9	2,3	4,2	3,0	1,6
Inportazioak	5,3	0,6	-2,8	1,6	3,9	3,2	1,3
Lehen arloa	-19,8	13,4	13,1	24,3	11,6	2,8	-0,7
Industria	2,0	3,9	4,5	4,9	4,8	2,4	2,9
Eraikuntza	-1,7	0,5	0,2	-0,2	-0,3	2,7	1,9
Zerbitzuak	1,7	2,9	3,1	2,8	3,0	3,4	3,1
Balio erantsi gordina	1,4	3,1	3,3	3,2	3,3	3,1	3,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,8	1,1	1,2	2,0	3,2	3,2	2,9

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2016ko urria

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016		2016	2017				2017
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	2,8	2,5	2,9	2,0	1,9	2,2	2,5	2,2
Barneko azken kontsumoa	2,7	2,2	2,8	1,8	1,6	2,0	2,0	1,9
Familien kontsumoa	2,9	2,5	3,0	1,9	1,8	2,1	2,1	2,0
Administrazioaren kontsumoa	1,8	1,2	2,0	1,5	1,3	1,4	1,5	1,4
Kapital eraketa gordina	3,4	3,0	3,4	2,7	2,4	2,7	3,2	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,9	2,5	3,0	2,1	1,9	2,2	2,5	2,2
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	0,0	-0,1	-0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
Lehen arloa	3,3	5,0	5,7	-0,4	1,1	-6,3	-7,1	-3,2
Industria	2,1	1,9	2,8	1,7	1,5	2,4	2,7	2,1
Eraikuntza	2,3	1,7	1,6	1,1	1,1	1,8	2,4	1,6
Zerbitzuak	3,0	2,6	3,0	2,2	2,1	2,4	2,7	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	2,4	2,9	2,0	1,9	2,3	2,6	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,9	2,7	3,0	2,1	2,0	2,3	1,9	2,0
Enplegua	1,8	1,7	1,8	1,5	1,4	1,7	1,7	1,6

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2016	2017		2016	2017
Funcas	3,3	2,2	BBVA	2,7	2,4
CEPREDE	3,2	2,6	Laboral kutxa	2,6	2,4
Hispalink (BEGren aldakuntza)	3,0	2,2	Confebask	2,6	—

Iturria: CEPREDE (2016ko azaroa), BBVA (2016ko azaroa), Confebask (2016ko uztaila), Laboral Kutxa (2016ko uztaila), Funcas (2016ko urria) eta Hispalink (2016ko azaroa).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016		
			III	IV	I	II	III
BPG	1,4	3,2	3,4	3,6	3,4	3,4	3,2
Kontsumo pribatua	1,6	2,8	3,3	3,2	3,4	3,2	2,8
Kontsumo publikoa	-0,3	2,0	2,3	2,7	2,0	0,8	1,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,8	6,0	6,7	6,4	4,8	3,6	3,1
- Aktibo finko materialak	3,8	6,5	7,3	6,8	4,9	3,7	3,2
- Eraikuntzan	1,2	4,9	5,3	5,0	3,1	2,0	2,0
- Ekipamendu ondasunetan	8,1	8,8	10,4	9,6	7,6	6,1	4,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,5	3,6	3,3	4,0	4,2	3,5	2,6
Nazio eskaria (ekarpena)	1,9	3,3	3,7	3,8	3,5	2,9	2,6
Esportazioak	4,2	4,9	4,9	5,0	4,1	6,4	2,8
Inportazioak	6,5	5,6	6,2	6,1	4,8	5,1	0,9

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2016	2017		2016	2017
AFI	3,2	2,3	Intermoney	3,2	2,2
BBVA	3,3	2,5	Repsol	3,2	2,6
Bankia	3,2	2,5	Santander	3,1	2,2
Caixa Bank	3,2	2,4	Solchaga Recio & asociados	3,2	2,2
Cemex	3,2	2,5	BATEZ BESTE	3,2	2,4
CEEM-URJC	3,2	2,3	Gobernua (2016-12)	3,2	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,1	Espainiako Bankua (2016-09)	3,2	2,3
CEOE	3,1	2,3	Europar Batzordea. (2016-11)	3,2	2,3
FUNCAS	3,1	2,3	NDF (2016-10)	3,1	2,2
ICAE-UCM	3,2	2,5	ELGE (2016-11)	3,2	2,3
IEE	3,2	2,4	The Economist (2016-11)	3,1	2,1
IFL-UC3M	3,1	2,1	Consensus Forecast (2016-11)	3,1	2,2

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016		
			III	IV	I	II	III
AEB	2,4	2,6	2,2	1,9	1,6	1,3	1,6
Txina	7,3	6,9	6,9	6,8	6,7	6,7	6,7
Japonia	0,0	0,6	1,9	0,9	0,2	0,7	0,8
Kanada	2,6	0,9	0,8	0,4	1,3	1,1	1,3
Europar Batasuna	1,5	2,2	2,1	2,1	1,9	1,9	1,9
Eurogunea	1,1	2,0	1,9	2,0	1,7	1,7	1,7
Alemania	1,6	1,7	1,7	1,3	1,8	1,7	1,7
Frantzia	0,6	1,3	1,1	1,3	1,4	1,3	1,1
Erresuma Batua	3,1	2,2	1,9	1,7	1,9	2,1	2,3
Italia	0,1	0,7	0,6	0,9	1,0	0,8	1,0
Herbehereak	1,4	2,0	2,0	1,2	1,5	1,8	2,4

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2016ko azaroko aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
AEB		2,2	1,2	2,3	4,9	4,7
Japonia	0,6	0,9	-0,2	0,4	3,1	3,0
Kanada	1,2	1,9	1,5	2,0	7,0	6,9
Europar Batasuna	1,8	1,4	0,3	1,5	—	—
Eurogunea	1,6	1,3	0,2	1,3	10,1	9,8
Alemania	1,8	1,3	0,4	1,6	6,1	6,2
Frantzia	1,3	1,2	0,2	1,2	9,7	9,5
Erresuma Batua	2,0	1,1	0,7	2,5	5,0	5,3
Italia	0,8	0,7	0,0	0,8	11,5	11,2
Herbehereak	1,6	1,5	0,3	1,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.